

aren beste arrisku
emen ez daukagu.
Euren arraiñ ederrak
sarri gaituz poztu.
Gure arrantzaliak
daiguzan txalotu.

ENBEITA'TAR Jontxu
(12 urteko)

EZTAGONAREN EREILEA

(*Meabe'tar Tomas*)

Galetsitako aizezko-errota zar baten egoak
ikusi ditut mugitzen.

Nekazari bat dakus ereingo ba-lukean ari-
tuz. Soilki ta astiro, bere bularrak eguzkiz
gorriturik, ortotzik ta oñetatik odola dario-
la zijoan; erri alderunzko gain batetik, be-
soeri zerutik lurreruntz eragiñaz. Eskuetara
begiratu nion: utsik zituan!

—Nor da? —galdetu nion militar bati.

—Ero bat —erantzun zidan.

Eta nik pentsatu nuan:

—Doetsuak beren erokerian paketsu diran
aiek! Doetsuak erokeriak artuta ere zindo
agertzen diran aiek! Doetsuak oraindiok es-
ku utsez ere, maitale, berenkautan bakarrik
dagoana ereitzen duten aiek!

Gero, nere eskuetara begiratu, ito bear
ninduan tristura-larriz esan nuan:

—Ta nik? Ta besteak?

Eta, militarri bizkarra emanaz, txapela
kendu nuan, atsekabez, ereile eroaren aurre-
kaldean.

Galetsitako errota gaxoa, mugitu zaitez pa-
kean!

OTSALAR euskeratzaillea